

## 2008KO MAIATZAREN 20AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hogeia

**HILABETEA:** Maiatza

**URTEA:** Bi mila eta zortzi

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatzia

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe  
Fernando Boada González  
Jon Kortaberria Lasa  
Begoña Lasa Royuela  
Julio Herreros Serna

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2008ko apirilaren 15eko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

### 2.- KONTRATAZIOA

2008ko maiatzaren 19ko kontratazio-mahaiak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

#### **“AURREKARIAK**

Gobernu Batzordeak 2008ko apirilaren 15ean, **”Beasaingo kale asfaltaketaren proiektua”** premiazko prozedura erabiliz eta lehiaketa bidez kontratatzea erabaki zuen, horretarako baldintza plegua onartuz.

Lehiaketaren deialdia, 2008ko apirilaren 25ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko epea 2008ko maiatzaren 8an amaitu zen. Epe horretan, “GUIPASA, S.A.. eta ASFALTOS URRETXU enpresak aurkeztu dituzte eskaintzak.

Lizitazio prezioa honako hau da: 120.000 €, BEZ barne. Egikaritze epea berriz: 2 aste.

Lizitatuzaileek aurkeztutako proposamenak hauek dira:

<b>LIZITATZAILEAK/ LICITADORES</b>	<b>Oinarrizko eskaintza/oferta base</b>	<b>Egikaritze epeaplazo de ejecución</b>
ASFALTOS URRETXU, S.A.	118.315,30	2 aste/semanas
GUIPASA, S.A.	120.000	2 aste/semanas

Aurkeztutako eskaintzak aztertu ondoren, proposamenei jarraian adierazten den puntuazioa ematen zaie, 2008ko maiatzaren 16ko txosten teknikoaren eta baldintza pleguko 15. artikuluko esleipen-irizpideen arabera:

Enpresak / empresas	Prezioa / precio	Memoria	<b>GUZTIRA</b>
ASFALTOS URRETXU	75	20	<b>95</b>
GUIPASA	71,47	5	<b>76,47</b>

Horren ondorioz, Kontratazio-Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Bide asfaltaketa ASFALTOS URRETXU, S.A.ri esleitzea, baldintza pleguaren arabera eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera.

**Bigarren.** Esleipen prezioa, 118.315,30 €koa da, BEZ barne.

**Hirugarren.** Egikaritze epea, bi astekoa izango da, ekainaren 9tik kontatzen hasita.

Baldintza pleguan ezarritako epea gaindetzearen arrazoia, Udaltzainak adierazitako trafikoaren ordenazioa da.

**Laugarren.** Adjudikaziodunak, zortzi eguneko epean idatzi hau jasotzen duen hurrengo egunetik kontatzen hasita, 4.732,61€ko behin betiko fidantza, nahiz 601.012,11 €ko erantzukizun zibileko poliza aurkeztuko du, jarraian kontratu administratiboa sinatzeko.”

Obra, baldintza pleguan adierazitako epetik kanpo egin behar denez, Fernando Boada jaunak esan du demostratu dela, premiazko prozedura erabili beharrik ez zegoela.

Jon Kortaberria jaunak, xehetasun hori baieztatu egin du.

**3.- INFORMAZIOA.** Hainbat gaiei buruzkoa informazioa.

#### ZIKLOMOTORREN INSPEKZIO TEKNIKOA

Alkateak jakinarazi du, ziklomotorren inspeksio tekniko Beasainen (udal-artxiboa dagoen ondoko tokian) egingo dela, bi edo hiru egunean. Beasain eta inguruko herriak Irungo sekzioan sartuta daude. Nahiz eta eskualdeko herriren bat sekzio horretan ez egon, eskatu da inspeksioa eskualde guztirako izatea. Irundik etorriko dira inspeksioa egitera, beraien tresnak ekarriz.

Aurreikusita dago Olaberrian autoentzat inspeksio tekniko modu iraunkorrean jartzea. Autoekin batera, ziklomotorrena ere egingo litzateke.

#### TRAFIKOARI BURUZKO KANPAINA

Ezagutzera eman da udaltzainak trafikoari buruzko kanpaina egiten ari direla, karga eta deskarga tokietan ez aparkatzeko.

#### MURUMENDI IKASTETXEKO ATEZAINA

Murumendi ikastetxeko atezaina kontratatua dago uztailaren 24arte.

#### BARRAKAK

Edozein jardueratan gertatzen den bezala, garapenaren ondorioz ezbeharrak sortu da, hain zuzen ere, emakume batek hankako peronea hautsi du eta horretaz erantzuteko barrakeroen aseguru etxeari gertaera horren berri eman zaio.

#### UDAL ALDIZKARIA

Alkateak adierazi du, jendeari proiektu garrantzitsuen, herriko elkarteek egiten dituzten ekintzen berri etab. emateko udal aldizkari bat egiteko asmoa dagoela eta hurrengo gobernu batzordean 0 zenbakiaren berri emango dela.

#### ERA IRAUNKORREAN GIDATZEKO IKASTAROA

Ostiral honetan GOIEKIk antolatutako ikastaroa izango da, aipatutako gaiari buruz. Ikastaro horrek ingurumenarekin zer ikusia du.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko bederatzia eta erdian amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.